

Arratsalde on guztioi.

Zuen aurrean agertzen naiz, gaur arratsaldean Kontzertuaren alde biko Batzorde Mistoan adostutakoaren eta sinatutakoaren berri emateko, Ramiro González, Unai Rementeria eta Markel Olano Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ahaldun nagusiekin batera.

Lehenik eta behin, aditzera eman nahi dizuet oso egun handia dela Euskadirentzat. Euskadiko erakundeentzat eta herritarrentzat.

Ez dut zalantzarik Rajoy jaunaren Gobernuarentzat ere egun handia dela.

Esan daiteke akordio bikaina dela Montoro ministroak eta nik neuk duela bi aste lortu genuena, eta gaur berretsi dena.

Oso pozgarria eta positiboa da. Kupoaren inguruko hamar urteko desadostasunen ondoren —eta batez ere azken sei urte hauen ondoren—, normaltasuna berreskuratu dugu Espainiaren eta Euskadiren arteko finantza-harremanetan.

Horrek finantza-balio handia du, baina balio politiko handia ere bai. Autogobernurako eta bake fiskalerako aurrerapausoak egin ditugu. Eta horixe, hain zuzen ere, nabarmendu nahi dut: akordioa bera lortu izana, eta erakundeen arteko normaltasuna itzuli izana.

Bereziki eskerrak eman nahi dizkiet Montoro ministroari eta bi gobernuetako talde teknikoei. Kemen handiz eta ahalegin handiz lan egin dute puntu honetara iristeko. Akordioa nahitaezkoa zen arren, ez zen erraza.

Eskerrik asko guztiei.

Duela 10 urte onartu zuen Kontzertu Ekonomikoaren Batzorde Mistoak gaur egun indarrean dagoen 2007-2011 aldiari dagokion bost urteko legea. Lege horren bosgarren xedapen gehigarriak hau aurreikusten zuen: erregimen komuneko erkidegoetako finantzaketa-ereduan aldaketarik badago, eta, aldaketa horren ondorioz, Estatuak itundutako tributuen zati bat laga behar badu, kupoak berrikusi beharko dira, eta oinarri-urtea eguneratu beharko da, baita Estatuaren tributurik itunduak gehitzearen ondoriozko eguneratze-indizeak ere.

Badakizuenenez, 2009an autonomia-finantzaketako beste eredu bat onartu zen, eta 2011n jarri zen indarrean. Kontzertu Ekonomikoaren Batzorde Mistoak urte horretan bertan berriro kalkulatu behar zituen Kupoaren zenbatekoak. Hala egin izan balitz, gaur ez genuke inolako auziez hitz egingo.

Une hartan ebatzi ez zena ebatzi ahal izan dugu orain. Horrenbestez, egon diren desberdintasunak ebaluatzean, Kupoari buruzko Legearen araudia aplikatu zaie Estatuko aurrekontu orokorretan adierazitako zenbatekoei, besterik gabe.

Aplikatzekoa den legeriaren eta aurrekontuko zenbakien arabera egin da, eta bi gobernuetako aditu teknikoen ezagutzan oinarrituta. Legezketasuna, gardentasuna eta ezagutza besterik ez da aplikatu akordio hau lortzeko; eta jakina bi aldeek borondate politikoa. Ondoren emango ditudan zenbatekoak Euskadiri legez dagozkion zenbatekoak dira.

Akordio honen arrakasta akordioa bera lortzea izan da. Ez da irabazlerik eta galtzailerik bilatu behar.

Akordio honen gardentasunaren lekuko, gaur edo bihar eskegiko da gure web-guneetan gaur sinatu dugun akta, eta nik neuk eskatu dut Eusko Legebiltzarrean agerraldia, legebiltzarreko talde guztiei akordioaren berri emateko.

Edonola ere, ez dugu ahaztu behar akordio hau gobernuen arteko akordioa dela. Gure betebeharra eta gure erantzukizuna izan da negoziazio hori baldintza horietan ixteko gauza izatea.

Beraz, akordio zuzena da, Kontzertu Ekonomikoan ezarritakoarekin koherentea, "garauak eta arauak" errespetatzen dituenak. Akordioa lortzeko, akordioaren barruan dagoen alde bikotasunaren izpiritua soil-soilik erabili da.

Prentsa-oharrean ikus dezakezuen bezala, gaur hamaika puntu dituen akta sinatu dugu.

Horien artean, Estatuak konpentsatu beharreko zenbatekoa finkatu da. 2007-2016 aldiko Kupoak kalkulatzeko izandako aldearen emaitzazkoa da, eta 1.248 milioi eurokoa da. Horrez gain, enplegu-politika aktiboari dagokien zenbatekoa ere finkatu da, 152 milioi euro. Hartara, zenbatekoa, guztira,

1.400 milioi eurokoa da. Eta gorantz konpentsatuko da hurrengo bosturtekoan.

Bestalde, **1.300 milioi** euroko behin-behineko kupoa finkatu da 2017rako, eta kupo hori izango da bost urteko lege berriaren oinarri-urteko kupoa.

Lege berri horren testua uztailean egin beharreko Batzorde Mistoaren bileran berretsiko da. Ondoren, Ganberak onartu beharko du, aurten bertan indarrean jarri ahal izango bada.

Hainbat zergaren ondoriozko 2017rako behin-behineko finantza konpentsazioak ere finkatu dira. Zerga hauen ondoriozkoak hain zuzen ere: alkoholaren, edari eratorrien eta tarteko produktuen gaineko zergak; garagardoaren gaineko zerga; eta hidrokarburoen eta tabakoaren gaineko zergak. Euskal Autonomia Erkidegoaren aldeko **87 milioiko** zenbatekoa da.

Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatutako enplegu- eta prestakuntza-politikekin lotzen den kostuaren behin-behineko balorazioa ere garrantzi handiko puntua da. Euskadiren aldeko 344 milioi euroko balorazioa da. Edonola ere, zenbateko horri kendu behar zaizkio Estatuarentzako hobariak, 158 milioi euro, eta gehitu behar zaizkio Europako Gizarte Funtsaren 29 milioi. Horrenbestez, Euskal

Autonomia Erkidegoaren alde **215 milioi** euroko behin-behineko balorazioa egin da.

Gainera, adostu dugu Europako Gizarte Funtsaren bidez batera finantzatuko direla hezkuntzari buruzko LOMCE lege organikoa ezartzeko jardunak, betiere enpleguko, prestakuntzako eta hezkuntzako eskualde anitzeko programaren "3. Hezkuntzako eta prestakuntzako inbertsioa" ardatzaren bitartez. Euskal Autonomia Erkidegoak egindako gastuak ziurtatuko ditu, eta Europako Gizarte Funtsaren % 50eko baterako finantzaketa jasoko du.

Bestalde, Estatuko Administrazio Orokorrak eta Euskal Autonomia Erkidegoak 2014-2019 urteetako aurrekontu-egonkortasunaren arloan izenpetutako aldebiko akordio hauek berretsi dira.

Aktak, halaber, euskal ogasunerako eta, batik bat, Arabako ogasunerako garrantzi handia duen beste puntu bat jaso du. Adostu da lantalde bat osatzea aztertzeko zer ondorio izango duen Mercedesen egitura juridikoa eta operatiboa aldatzeak. Lantalde horrek eragin negatibo hori murrizteko irtenbideei buruzko txostena egin beharko du 2017ko irailaren 30a baino lehen. Estatuko administrazioaren lau

ordezkarik eta Euskal Autonomia Erkidegoko lau ordezkarik osatuko dute lantalde hori.

Amaitzeko, akordio honen garrantzia nabarmendu nahiko nuke berriro, Estatuarekiko finantza-harremanetan egonkortasuna eta ziurtasuna ekarriko baitu. Eta berriro eskerrak eman nahi dizkiot Montoro ministroari akordioa bilatzeko hartu duen konpromisoagatik.

Eskerrik asko.